# Aire kalitatea hobetzeko jarduera planak

Kaltetutako udalak ondoko taulan ageri dira. Sailkapena egiteko, eremuak, legezko mugak **lehen aldiz gainditu** zireneko urteak **eta kasu bakoitzean bidalitako dokumentazioa** izan dira kontuan.

| Udalei bidalitako dokumentazioa | | | |
|---|---|---|---|
| **Diagnostikoa**<br>**Ekintza-proposamena** (2007ko Otsailan) | | **Diagnostikoa** | |
| **GAINDITZEAK 2003an** | **GAINDITZEAK 2004an** | **GAINDITZEAK 2005ean** | **GAINDITZEAK 2006an** |
| NERBIOI BEHEA<br>Alonsotegi (*)<br>**Barakaldo**<br>**Basauri**<br>**Bilbo**<br>**Erandio**<br>**Portugalete**<br>DONOSTIALDEA<br>Lezo (*)<br>IBAIZABAL-DEBA GOIENA<br>**Zornotza**<br>**Arrasate**<br>**Durango**<br>KOSTALDEA<br>**Zierbena** | DONOSTIALDEA<br>**Orereta**<br>GOIERRI<br>**Beasain** | NERBIOI BEHEA<br>**Abanto-Zierbena**<br>**Getxo**<br>ARABAKO LAUTADA<br>**Gasteiz (Betoño)**<br>UROLA GARAIA<br>**Azpeitia**<br>IBAIZABAL-DEBA GOIENA<br>Lemoa (*) | NERBIOI BEHEA<br>**Santurtzi**<br>DONOSTIALDEA<br>**Donostia (Easo)**<br>ORIA GARAIA<br>**Tolosa** |

**(*) – 2006 – Airearen kalitatearena beteta.**

GAINDITZEAK 2006an:

PM10en mugak gainditzearen 2006ko datuak kalkulatuta, ordura arte Ekintza-planak egiteko betebeharra zuten 3 udalerrik dagoeneko ez dutela horren beharrik ikusi da, 2006an ez baitira gainditu 1073/2002 EDan ezarritako mugak. Udalerri horiek ondokoak dira: **ALONSOTEGI, LEMOA eta LEZO**.

Haatik, honako udalerri hauek ere Ekintza-plan horiek egin beharra izango dute, 2006. urtean zehar PM10aren eguneko muga 35 aldiz baino gehiagotan gainditu dutelako: **SANTURTZI, DONOSTIA eta TOLOSA**.